


IRAKURKETA PLANA

ZERAINGO HERRI ESKOLA



AURKIBIDEA:

1. SARRERA
2. DIAGNOSTIKOA
3. HELBURUAK
4. JARDUERA ETA INPLEMENTAZIOA
5. EKINTZEN EBALUAZIOA ETA ERREGISTRO TAULAK
6. ERANSKINAK
7. BIBLIOGRAFIA



1. SARRERA

Ez dauka zentzurik irakurketaren ikaste irakaste prozesuaz hitz egiteak aurretiaz irakurketa, egun, zer den definitzen ez badugu.

Irakurtzearen definizioak gizartearekin eta kulturarekin batera eboluzionatu du urteetan barrena, eta oraindik ere eboluzio horretan dihardu atsedetik gabe. Komunikazioaren eta informazioaren gizartean irakurketaren definizio kontestualizatu baten beharra ezinbestekoa da, beraz, eskolak alfabetizazio horrekin egingo duen zereginaren mamia garatzerako orduan.

Kasu honetan, irakurketa testuen interpretazioa dela esan dezakegu, hizkuntza idatzia konprenitzeko egiten dugun prozesua, hain zuzen ere. Eta baieztapen hori egiterako orduan, testu tipologia zabal bat hartzen dugu kontuan, gizartean aurki ditzakegun testu mota anitzak askotarikoak baitira. Gainera, prozesu interaktiboa dela ulertzen dugu, izan ere, irakurtzea baldintza desberdinen baitan gertatzen den prozesu kognitiboa da (irakurlearen helburuak, testuaren mamia, irakurlearen aurre ezagutzak, prozesua non eta zein egoeratan gertatzen den ...)

Irakurtzeak interakzioa esan nahi du, irakurleak testu batekin egiten duena interakzioa baita; irakurtzeak eraikitzea esan nahi du, irakurleak testu batean dagoena bere ezagutzen baitan interpretatzen baitu. Beraz, esan dezakegu irakurlearen eta testuaren arteko interakziotik sortzen den zentzua, ezagutza ... dela irakurketa.

Baina, horretarako beharrezkoa da irakurleak testuaren mamiaren zentzuaren bila joatea, beharrezkoa da ulertzeko helburuz irakurtzea, bestela, ez baita irakurketarik izango.

Beraz, helburu horien araberako irakurketa estrategiak erabili beharko dira prozesu konplexu hau burutu ahal izateko. Eta guk irakurketa horrela ulertzen dugunez, beharrezkoa izango da prestatzen ditugun ekintza, egoera, eremu eta espazio guztietan, eta eskola komunitatea osatzen dugun guztion artean, irakurketaren inguruko ikuspegi hau errespetatzea eta partekatzea.

Asmo horri heldu nahi dio, beraz, besteak beste, irakurketa plan honek.

2. DIAGNOSTIKOA

Zeraingo Herri Eskolako hezkuntza proiektuan azaltzen den moduan, “eguneroko praktikaren oinarria talde lana da eta bertan proiektu bidezko metodologiari lotutako estrategiak erabiltzen dira. Burutzen diren jarduerak, ez daude testu liburuetan oinarriturik, proiektu ardatz komun bat daukate eta horren inguruan eskola osoak curriculuma garatzen du. Inguruan dauden baliabide naturalak eta bestelakoak ere txertatzen ditugu eskolako eguneroko praktikan. Baita ere bultzatzen dugu guztion parte hartzea: ikasle, irakasle eta guraso.

Plan hau egitura horren barruan txertatuta dago, eta ikasleen irakurketa kompetentzia garatzeko ahaleaginean diseinatu da. Hori horrela, hautemandako beharren egokitzapenak etengabekoa izan behar du ikaskuntza prozesu guztietan, baita irakurketari dagokionez ere. Horregatik irakurketaren ulermena garatzeari buruzko ekintzak diseinatzeaz gain, irakurriz gozatzea ere ezinbestekoa dela ezin dugu ahaztu.

Hezkuntza prozesuaren ardatz nagusienetarikoa bat da irakurketa. Beraz, garrantzitsua da ikastetxeko irakurketa plana osatzea. Bertan, ikasleak irakurle aktiboak izatea eta irakurtzen dituzten testuak era eraginkorrean uler ditzaten bilatzen da, bai ikasteko eta baita gozatzeko eta gizarte-elkarrekintzarako ere.

Irakurketa planaren inguruko diagnostikoa egiteko garaian, hainbat informazio iturri erabili ditugu. Esaterako, eskolako egunerokotasunean egiten diren jardueren barne hausnarketa, eskola txikietako foro ezberdinetako hausnarketa bateratuak, Hezkuntza Saitetik datozen jarraibideak... Horiekin guztiekin, planaren eguneratzea egin dugu.

Irakasleoi dagozkigunak

1. Irakurtzen ikasteari buruz, ez dugu ezagutzen irakurketaren psikogenesia, idazketarena oso argi daukagun bezala, irakurketarena ez dugu kontrolatzen. Ildo nagusia eta oinarria konpartitzen dugu, hau da, irakurtzea zer den eta noiz hasten den konpartitzen dugu, baina ondoren ematen den prozesua ez dugu sakontasunez ezagutzen eta ondorioz ez daukagu nahikoa estrategia irakurketa prozesuan ikasleari laguntzeko. Beraz, hau egon gabe ez dago sistematizatuta irakurketaren inguruko ezer.
2. Ikasteko **irakurketaren** inguruan, testu moten lanketa ziurtatzen da.
3. Sistematizatuta daukagu 6 testu mota konkretu lantzen dituzte ikasleek (zeharka beste hainbat lantzen dira), gure proiektuen oinarria testu motak direlako.

	<ol style="list-style-type: none"> 4. Ez ditugu testu onak aukeratzeko irizpideak zehaztu. 5. Irakurzaletasunari lotuta: liburutegia ondo hornituta dugu, baina irakurketak hautatzeko irizpideak zehaztea falta zaigu.
Ikasleak irakurketarekin duten loturaren inguruko hausnarketak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Orokorrean, ez daukagu ezer adostuta, ez atxikimendu ona sortzeak duen garrantzia, ez interakzioak zaintzeko estrategiak. Azken hau era natural batean ematen da, gelako dinamiketan, tutorizatuak ematen diren momentuetan, baina ez daukagu irakurketari zuzendutako saioen antolamendu adostu bat, batez ere, behin deszifratzen hasi eta gero estrategia gehiago barnerratzeko (abiadura, inferitza ...) 2. Ikasleek denbora gehiago behar dute irakurketarako, eskaintzen dioguna baino denbora gehiago eskaini behar zaio ikasleari. Gaur egun saio bat dute liburutegian eta asteen hirutan irakurketa saioak, baina pertsonalizatuagoa izango den denbora bat eskaini behar zaie.
Gurasoen inplikazioaren inguruan egindako hausnarketak:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Irakurketa prozesuaren ezaugarrien berri ez dute familiek. 2. Liburu onen gomendioak ez dizkiegu egiten. 3. Etxean liburuekin gozatzeko estrategiak ez dizkiegu eman gurasoei.

3. HELBURUAK

Zeraingo Herri Eskolako Hezkuntza Proiektuan azaltzen dena oinarri hartuz, printzipio eta baloreen artean gure eskola eskola konpentsatzaile dala esaten dugu. Konpentsazioaren bide honetan garrantzitsua izango da ikasle guztiei gizartean parte hartze aktibo bat izateko beharrezkoak izango dituzten oinarri kulturalak ematea. Gure eskolan zuzenean arduratu nahi dugu gure gizartearen errealitatean bizitzeko eta parte hartzeko beharrezkoak diren oinarri kulturekin. Horregatik, gure ardurapean hartzen ditugu ikasleen garapenean oinarri kultural gisan definitu ditugun ondoko elementuak:

- Pentsamendu kritikoa
- Irakurketa/idazketa

- Hizkuntzak
- Ordena emozionala
- Matematikarako gaitasunak
- Autonomia
- Baliabide kultural eta emozionalak eskaintzea
- Teknologia

Honi lotura eginez, Irakurketa Plan honetan hurrengo helburuak planteatu nahi ditugu:

EREMUA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ESPEZIFIKOAK	LORPEN ADIERAZLEAK
IRAKURZALE TASUNA SUSTATZEA REN INGURUAN	Irakurzaletasuna garatzea eta irakurketarekiko atxikimendu ona lortzeko ekintzen diseinuan aurrera urratsak ematea	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegia irakurzaletasuna sustatzeko eta indartzeko moduko espazio erreferente bihurtzeko behar den guztia diseinatzea, antolatzea eta horren jarraipena ematea. • Eskolan irakurzaletasuna bultzatzeko lan saio/ ekintza desberdinen, eredugarriak eta emankorrak direnak, inguruko analisi lana bultzatzea, diseinatzea, planifikatzea, martxan jartzea eta jarraipena ematea. • Haur eta Gazte literaturaren etengabeko berriak jasotzeko moduak pentsatzea eta prestatzea, horien analisirako lan egitura eta arduren banaketa bat pentsatzea eta 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Liburutegiaren diseinua aztertu, eztabaidatu eta berrantolaketa bat egin da ikasleen irakurzaletasuna garatzeko asmoz. ○ Liburutegiaren arduraduna izendatu eta bere zereginak zein diren eztabaidatu dira eta txosten batean bildu dira. ○ Irakurzaletasuna bultzatzeko interesgarriak diren praktika onen analisi bat egin da Sareko beste Eskola Txikien ezagutza eta esperientzia aprobetxatuz. ○ Gutxienez, ezagutzen ditugun 2 praktika on martxan jarri dira eskolan, ordutegian dagokion tartea emanez. ○ Haur eta Gazte literatura aztertzeko, dagoena eta sortzen dena, planifikazio bat egin da

		<p>eskaintzen den literatura kalitateak dituen emaitzen jarraipena egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Familia inplikazioaren garrantziaz oharturik, irakurketari lotuta familientzat aholku txosten bat osatzea: liburu gomendioak, zer irakurri, nola, zein jarrera izan,... 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Eskolan irakurketari eskainitako espazioak definitu dira. ○ Haur eta Gazte literaturako obrak aukeratzeko irizpideak adostu dira. ○ Familiei irakurzaletasunaren inguruko gomendioak luzatu zaizkie, G suite plataformaren bidez.
IRAKURTZEN IKASI	<p>Irakurtzen ikasteari lotuta dauden erabakiak koordinatzea, horien inguruko formazio lanak aurreikustea eta landutako ikuspegiarekiko koherentea den metodologia erabakiak garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Eskolan hurrek irakurtzen nola ikasten dutenaren inguruan ditugun ezagutzen inguruko analisi eta eztabaida lan bat egitea eta horren ondorioak bilduko dituen diseinu metodologiko baten oinarriak sendotzea. ● Irakurtzen ikasteari buruzko estrategien bilduma lan bat egitea eta txosten bat osatzea irakasleen eskura egon dadin. ● Arlo honetan irakasle guztiak behar bezala formatuta izatearen garrantzia kontuan izanik, etengabeko eta sakontzeko formaziorako diseinuak egitea, bai Sarean beste Eskola Txikiekin batera, eta baita, eskolan bertako jakintza eta esperientzia aprobetxatuz ere. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irakurtzen ikastearen inguruko ikuspegia landu da eta horri lotutako erabakiak bateratu eta txosten batean bildu dira. ○ Gelan egiten diren lan dinamikak aztertu eta ikuspegi honen koherentziara ekartzeko beharrezko aldaketak egin dira. ○ Irakurketaren fase ezberdinen inguruko analisisia egin da eta horretan esku-hartzeko estrategia ezberdinak biltzen dituen txostena osatu da. ○ Formazio beharra duten irakasleentzat dokumentazioa prestatu da eta horren zabalkunderako urtero antolatuko den dinamika diseinatu da. ○ Eskola Txikien Sarean elkarrekin batera egin daitekeena aztertu eta diseinatu da, eta antolatu den horretan eskolak parte hartu du. ● Guraso bileretan irakurketan garrantziaz hitz egin da eta irakurketa planaren berri eman zaie. ● Irakurketaren oinarriaren inguruko formazioa jaso da.
IKASTEKO IRAKURRI	<p>Sakontzeko irakurtzeari</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Sakontzeko irakurtzea zer nola lantzen den eskolan aztertzea eta horren 	<ul style="list-style-type: none"> ● Sakontzeko irakurtzearen inguruan egiten diren eskolako praktikak aztertu dira lan taldean eta

	<p>lotuta dauden erabakiak koordinatzea, horien inguruko formazio lanak aurreikustea eta landutako ikuspegiarekiko koherentea diren metodologia erabakia hartzea.</p>	<p>inguruko gogoeta egitea egon daitezkeen hobetzeko bideak aztertze eta estrategia berriak lantzen jarraitze.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arlo honetan irakasle guztiak behar bezala formatuta izatearen garrantzia kontuan izanik, etengabeko eta sakontzeko formaziorako diseinuak egitea, bai Sarean beste Eskola Txikiekin batera, eta baita, eskolan bertako jakintza eta esperientzia aprobetxatuz ere. 	<p>hobetzeko strategiak diseinatu eta aplikatzeko bideak ezarri dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sakontzeko irakurtzearen inguruko formazio saio zehatza egin da eta estrategia ezberdinak pentsatu dira. • Estrategia horiek bilduma txosten batean gorde dira eta eskolako dokumentazioaren barnean leku propio bat egin zaio • Testu genero ezberdinen lanketa aurrera eraman da.
--	---	--	--

4. JARDUERA ETA INPLEMENTAZIOA

HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA OROKORRA	EKINTZAREN DISEINUA	DENBORALIZAZIOA ETA ARDURADUNA	BALIABIDEAK
<p>Irakurzaletasuna garatzea eta irakurketarekiko atxikimendu ona lortzeko ekintzen diseinuan aurrera urratsak ematea</p>	<p>Liburutegiko erreferentziazko pertsona bat izendatu eta zereginak definitu.</p>	<p>ZEREGINAK:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Liburutegia ondo hornitua izatea. 2. Liburutegiaren mantenua: ordena, puskatutako liburuen konponketa, beharrezkoak diren moldaketak egin,... 3. Haur eta Gazte Literaturako kalitatezko liburuen berri eman komunitateari: G suite plataformaren bidez, 	<p>Ikasturtean zehar.</p> <p>Liburutegiko arduraduna</p>	<p>Liburutegia Internet G Suite plataforma Argialetxetako noble dadeak Irakur gidak Mondragon</p>

		<p>emailez edota hilabetean behin liburu erakusketa lekuan liburu ezberdinak jarritz.</p> <p>4. Liburu berriak eskura jarri, liburutegian horretarako apal bat jarriko da, argitalpen berriak jarri eta irakurzaletasunarekin eskolara helarazten den material desberdina jartzeko.</p> <p>5. Liburutegiko liburuen mailegu zerbitzuaren arduraduna izan.</p>		Galtzagorri
	Liburutegiaren erabilera sistematizatu.	<p>1. Liburutegia irekita egongo da eskola ordu guztietan irakurketa librerako espazio izan dadin.</p> <p>2. Astean behin liburutegira joan heldu bat bidelagun dutela, ipuin baten irakurketa egin eta liburu mailegu zerbitzua ahalbideratzeko. Bi taldetan banatuta joango dira ikasleak, HH alde batetik eta LH bestetik. Ordutegian honentzako tartea azalduko da</p>	Liburutegiko arduraduna Ikasturtean zehar asteko egun batean	Liburutegia Irakasle arduraduna
	Irakurzaletasuna bultzatzeko dinamikak ezarri.	<p>1. Eskolan hainbat espazio irakurketari begira diseinatu.</p> <p>2. Astean hirutan irakurketa saioak eskaini, hiru hizkuntzatan: astelehen, astearte eta ostegun goizetan 9:00etan. Ipuin bakoitzaren irakurketa ahoz gora egingo du irakasleak eta eskolako espazio desberdinetan izango da: Liburutegian, LHko gelan eta HHko gelan. Ikasleek libreki aukeratuko dute zein irakurketara joan</p> <p>3. Programa desberdinetan parte hartu: Galtzagorri elkarteko “Liburuen Altxorra” Idazleak ikastetxeetan Nolega</p>	Eskolako irakasleak eta guneko arduraduna. Programetan izena emateko ardura zuzendaritza taldearena izango da.	Eskolako espazio desberdinak Espazio horiei dagozkien liburu espezializatuak. Irakurzaletasuna sustatzeko programa eta ekimen ezberdinak Hiru hizkuntzatan ipuin ezberdinak

		4. Inguruko ipuin lehiaketetan parte hartzera gonbidatu.		
	Familiei orientabideak eman beren seme alabei irakurzaletasuna sustatzen laguntzeko	<ol style="list-style-type: none"> 1. Familiei orientazioa eman, ikasleei irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeko moduan izan daitezten: ikasturte hasierako bileran eta Irakurketa planaren bitartez. 2. Argitalpen eta nobedade interesgarriak partekatu G Suite plataformaren bidez edo liburutegiko apalean. 3. Eskolak luzatutako liburu kanonikoen berri jaso. 4. Inguruko eskaintzaren eta kultura proposamenen berri eman ikasleen parte hartzea sustatuz familien laguntzaz. 5. Herriko eta inguruko liburutegien erabilera bultzatu. 	Liburutegi arduraduna G suite plataforman liburutegi arduradunak igoko ditu materialak. Ikasturtean zehar.	Argitalpen eta nobedadeak G suite plataforma Liburutegia Ikasturte hasierako bilera
Irakurtzen ikasteari lotuta dauden erabakiak koordinatzea, horien inguruko formazio lanak aurreikustea eta landutako ikuspegiarekiko koherentea den metodologia erabakiak garatzea	Irakurketa tutorizatuak egitea.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Garapen kognitiboaren arabera ikasleak binaka hartu eta irakurketa partekatua egin. Astean hirutan egingo da, 10:30etan. Taldeak irakurketa prozesuaren zein momentutan dauden kontutan hartuta egingo dira. Helburua irakurketa prozesu horretan aurrera egiteko laguntza eskaintzea da. Ikasle bakoitzarekin, beharraren araberrako lanketa emango da. 2. Irakasleen artean adostuko dira esku-hartze estrategiak zeintzuk izango diren saio horietan. 3. Ikasleak beraien arteko irakurketa tutorizatuak egin, batzuetan era natural baten eta bestetan irakasleak gidatutako saioetan. Beti ere, adin aniztasuna errespetatuko da saio hauek planteatzerako orduan. 4. Irakurketan eragiten duten faktoreak kontuan hartzea: 		
		IRAKURLE ARI	GAITASUNAK: arreta, memoria, aztertze gaitasuna.	

			<table border="1"> <tr> <td>DAGOKIO NEZ</td> <td>MOTIBAZIOA: autoestima, esperientzia,... EZAGUPEN MAILA: hiztegia, gaiari eta munduari buruzkoak</td> </tr> <tr> <td>TESTUA</td> <td>Egitura, informazio bolumena, lexikoa, lokailuak, beharrezko aurrezagupenak,...</td> </tr> <tr> <td>JARDUERA MOTA</td> <td>Asmo garbia eta esplizitoa. Motibatze eta informatzeko baliagarria Helburu eta ondorio bat duena.</td> </tr> </table>	DAGOKIO NEZ	MOTIBAZIOA: autoestima, esperientzia,... EZAGUPEN MAILA: hiztegia, gaiari eta munduari buruzkoak	TESTUA	Egitura, informazio bolumena, lexikoa, lokailuak, beharrezko aurrezagupenak,...	JARDUERA MOTA	Asmo garbia eta esplizitoa. Motibatze eta informatzeko baliagarria Helburu eta ondorio bat duena.		
	DAGOKIO NEZ	MOTIBAZIOA: autoestima, esperientzia,... EZAGUPEN MAILA: hiztegia, gaiari eta munduari buruzkoak									
	TESTUA	Egitura, informazio bolumena, lexikoa, lokailuak, beharrezko aurrezagupenak,...									
JARDUERA MOTA	Asmo garbia eta esplizitoa. Motibatze eta informatzeko baliagarria Helburu eta ondorio bat duena.										
Familiei irakurketaren inguruko orientabideak ematea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Guraso bileretan irakurketari buruzko orientabideak eman.(IKUS ERANSKIN 4) 2. Eskolako G Suite plataforman, paperean, tabloian,... gurasoentzako material interesgarria eskura jarri. 										
Irakurketaren oinarriaren inguruko formazioa definitu eta dagozkion estrategiak zerrendatu.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola Txikietako sarean honen inguruko formazioa jaso. • Formazioa jaso ondoren, esku-hartze estrategiak adostu. • Ikasleen irakurketa prozesuaren ebaluazio txantiloia osatu. 										
Sakontzeko irakurtzeari lotuta dauden erabakiak	Irakurketa faseak Irakurketaren helburua ondo definitu: zer eta	<ol style="list-style-type: none"> 1. Irakurketaren inguruko hiru faseei lotutako estrategiak garatzen laguntzeko ekintzak sistematikoki planifikatu.(IKUS ERANSKIN 1) 									

koordinatzea, horien inguruko formazio lanak aurreikustea eta landutako ikuspegiarekiko koherentea den metodologia erabakia hartzea.	zertarako irakurtzen dugun.			
	Irakurketa eraginkorra izan dadin estrategiak adostu.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Estrategi zerrenda adostu. 2. Ikaslearen beharraren arabera laguntzeko dinamikak ezarri. 		
	Testu generoen lanketa bermatu.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Testu genero desberdinetako testuen ezaugarriak landu, identifikatu eta bereizi. 2. Arloko programazioetan ezaugarri desberdinak dituzten testu motak aurreikustea (iKUS ERANSKIN 2) 3. Testu bat eredu bezala hartu eta norberarena sortzea. 		

5. EKINTZEN EBALUAZIOA

JARDUERA	ZEIN NEURRITAN BETE DA	ERAGINKORRA IZAN DA. ALDERDI AZPIMAGARRIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Liburutegiko erreferentziazko pertsona bat izendatu eta zereginak definitu da			
Liburutegiaren erabilera sistematizatu da.			
Irakurzaletasuna bultzatzeko dinamikak ezarri dira.			
Familiei orientabideak eman beren seme alabei irakurzaletasuna sustatzen laguntzeko			
Irakurketa tutorizatuak egitea.			
Familiei irakurketaren inguruko orientabideak eman.			
Irakurketaren oinarriaren inguruko formazioa jaso:			

definitu eta dagozkion estrategiak zerrendatu.			
Irakurketa faseak Irakurketaren helburua ondo definitu: zer eta zertarako irakurtzen dugun.			
Irakurketa eraginkorra izan dadin estrategiak adostu.			
Testu generoen lanketa bermatu.			

IRAKURKETA PLANEKO EKINTZEN JARRAIPENA

HIRU HIZKUNTZETAN IRAKURKETA SAIOAK

Astelehen, astearte eta ostegunean izango dira saioak. Goizeko 9:10etan hasi eta gehienez 9:30ak arte iraungo du.

Hiru hizkuntzetan izango dira eta honela banatuko dira ardura eta espazioak:


INGELESA: liburutegian.

GAZTELANIA: LH gelan.

EUSKARA:, HH gelan.

Ondoren aurrera eraman diren irakurgaien zerrenda.

	INGELESA	EUSKARA	GAZTELANIAZ
AZAROAK 26-30	Cat is on the mat	Egin igeri, Wombat txiki!	El chupete de gina
ABENDUAK 3-5	From head to toe	Bainura	Olivia
ABENDUAK 10-14	THE STORY OF THE LITTLE MOLE	Amets magikoa	La escuela de Ines
ABENDUAK 17-21	monkey puzzle	la última avellana	Txokolata
URTARRILAK 7-11	The very hungry caterpillar	Hartz handia, hartz txikia eta ni neu	Te quiero (casi siempre)
URTARRILAK 14-18	Yellow hat, red hat	Hontz kumeak	No me dejan hacer nada
URTARRILAK 21-25	Just like casper		¡NO!
URTARRILAK 28-31	Spot's bithday party	Osaba otso	La nueva casa
OTSAILAK 4-8	Ten in the bed	Oilobustia	Hay un oso en el cuarto oscuro
OTSAILAK 11-15	The Gruffalo	Sekulako oparia	El tesoro del pirata
OTSAILAK 18-22	A cat in the tree	Iratxoaren txanoaren	El lobo sin calzoncillos ¡Se me congelan!
OTSAILAK 18-22		Iratxoaren txanoaren	Y tu ¿como cantas?
OTSAILAK 25 MARTXOAK 1		Ez da ahotsik behar	Ali baba y los cuarenta ladrones.
MARTXOAK 11-15	The train ride	Baratzeko misterioa	Ali baba y los cuarenta ladrones.



IRAKURKETA SAIO TUTORIZATUAK

Garapen kognitiboaren arabera ikasleak binaka hartu eta irakurketa partekatua egin. Astean hirutan egingo da, 10:30etan. Taldeak irakurketa prozesuaren zein momentutan dauden kontutan hartuta egingo dira. Helburua irakurketa prozesu horretan aurrera egiteko laguntza eskaintzea da. Ikasle bakoitzarekin, beharraren araberrako lanketa emango da.

Hasierako taldekatzea:

TALDEA	EGUNA	TOKIA	ARDURADUNA
	ASTELEHENA	LIBURUTEGIA	
	ASTEARTEA	LIBURUTEGIA	
	OSTEGUNA	LIBURUTEGIA	

Irakurketa prozesuaren jarraipen eta ebaluazioa irakasle taldeak egingo du.

6. ERANSKINAK

- **ERANSKIN 1: IRAKURKETA FASEAK ETA ESTRATEGIA POSIBLEAK**

Hiru fase hauek gauzatzeko jarduerak proposatuko zaizkie ikasleei, beti ere, kontuan izanda prozesu honetan oztopoak egongo direla eta irakaslea laguntzeko prest egongo dela.

Irakurri aurretik

Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.:

1. Informazio zehatza aurkitzeko
2. Instrukzioak jarraitzeko
3. Informazio orokorra lortzeko.
4. Iritzi ezberdinak egiaztatzeko.
5. Arazoak konpontzeko
6. Besteei informazioa komunikatzeko.
7. Plazerragatik.

Testuak esanahiaren aldetik eskain dezakeenaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina lantzea.

Aurretiko ezagutzak aktibatzea.

Iragarpenak eta hipotesiak adieraztea.

Animatu, motibatu, girotu.

Testu generoa eta honen helburua identifikatu. Begirada globala eman testuari, egituraz konturatzeko eta testu generoari buruzko ezagutzak aktibatzeko.

Hitz gakoak zehaztu gaia identifikatzeko.

Irudiei erreparatu.

Irakurri bitartean	<ul style="list-style-type: none"> -Hipotesiak etengabe egin eta egiaztatzea. -Irakurritakoaren gaineko galderak egitea. -Testua irakurri ahala sortzen diren zalantzak argitzea. - Irudiei erreparatu. - Testuari buruz hitz egin eta aurrezagutzekin lotu. - Ulertu ez dena berriro irakurri. - Hitz ezezagunak identifikatu.
Irakurri ondoren	<ul style="list-style-type: none"> -Irakurritakoa berrerabiltzea, eta ezagutza berria eraikitzea: beste testu bat ekoiztu, arazo bat konpondu, jakinmina asetu,... - Irakurritakoa komentatu. - Ideia nagusia zein izan den zehaztu.

● **ERANSKIN 2: TESTU GENEROEN LANKETA**

<p>Testu mota ezberdinak lantzea eta eskura izatea aberasgarria da ikasleentzat. Hona hemen testu-bankuaren ezaugarriak zeintzuk izan behar duten</p>	
TESTU TIPOLOGIA	<ul style="list-style-type: none"> - Testu literarioak: narrazio, ipuin, olerki, aho korapilo,... - Azalpen testuak - Biografia - Elkarrizketa - Testu instruktiboa - Albisteak - Antzerkia: gidoia. - Deskribapena. - Komikia.

TESTU ONAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Gaurkotasuna eta gizarte errealitatea islatzen dituzten testuak. ❖ Kalitatearen eta eraginkortasunaren arabera hautatuak. ❖ Ikasleen interesekoak eta haien ezagutza-mailarako egokiak. ❖ Askotarikoak, testu-tipo, testu-genero eta erabilera-eremuari dagokienez. ❖ Analogikoak eta digitalak. ❖ Beste hizkuntza batzuetan idatziak. ❖ Egokituak, beharra eta garapenaren arabera.
TESTUAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektu eta interes gunearekin erlazionatuta dago. - Interesgarria da ikasleentzat, haien jakinmina piztu dezake. - Ikasleen aurrezpenekin erlazona daiteke. - Testu egitura argia du. - Lagungarriak diren irudiak ditu. - Kontzeptu berriak ulertzeko, ondorioztatzeko, hipotesiak egiteko...posibilitatea ematen du,. - Gaitasun mailari egokitutakoa da.

● ERANSKIN 3: IRAKURKETA AUTOEBALUAZIOA

	AUTOEBALUAZIO IRIZPIDEAK	BAI	LAGUNTZAREKIN	EZ
	Testuekiko interesa azaltzen du: eskuetan hartu, begiratu,...			
	Irakurketarako interesa azaltzen du: helduek ahoz goran egiten dituzten irakurketak, ahoz beherako irakurketak,...			
	Eskolak irakurketarako diseinatu dituen espazioetara hurbiltzen da.			
	Espazio horietan dauden liburuak begiratzen ditu.			

Besteei era natural baten irakurketak egiten dizkie.			
Irakurketa tutorizatueta parte hartzen du.			
Irakurketarako estrategiak adierazten ditu: irudiari edo egiturari erreparatu testuaren esanahi nagusia antzemateko.			
Irakurketa prozesuan aurrera egin du: dekodifikaziora iritsi da.			
Testuak ulertzen saiatzen da.			
Besteei irakurketarekin laguntzeko gai da.			
Hiru hizkuntzatan egiten diren irakurketa saioetan parte hartzen du.			
Liburutegitik liburuak eramaten ditu etxera.			

- **ERANSKIN 4:FAMILIENTZAKO GOMENDIOEN ZERRENDA**

ZER EGIN DEZAKET SEME-ALABEK IRAKUR DEZATEN?

1. Lagundu, ez behartu.
2. Eskolako lanen jarraipena egin.
3. Irakurtzeko leku lasaia eta giro egokia prestatu.
4. Egitekoak antolatzen lagundu: denbora, liburuak...
5. Interesa erakutsi semeak edo alabak egiten duenaz, ezagutzak eta liburuak partekatuz, interneten informazio bilaketak eginez...
6. Adi egon eta zalantzak argitzen lagundu.
7. Informazio- eta kontsulta-lan egokiak aukeratu.
8. Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko aukera eman etxean.
9. Interneten lagundu eta elkarrekin nabigatu.
10. Haiekin joan liburu dendetara, liburu azoketara, erakusketetara...

11. Liburutegiko bazkide egin.
12. Irakurtzea ohitura bihurtu.
13. Liburuak aukeratzeko askatasuna eman; libururik ez debekatu.
14. Haien adinerako egokiak diren liburuak eskaini.
15. Haiekin irakurri.
16. Irakurritako liburuen inguruan hitz egin.
17. Helduak eredu izan, etxean irakurzaletasuna sustatzeko modurik onena da.

7. BIBLIOGRAFIA ETA WEB ORRI INTERESGARRIAK

<https://sites.google.com/berritzegunenagusia.eus/eskolatxikienirakurketaplana/irakurketa-plana/irakurketa-plana-diagnostikoa>

<https://irakurgune.hezkuntza.net/eu/>

<https://sites.google.com/site/aprenderaleeryescribir/home>

Joana Acharen bideoa: irakurketaren inguruan

<https://youtu.be/zShGGaFCoZc>

Irakur gidak:

MONDRAGON: <https://www.mondragon.edu/eu/revistas-publicaciones/guia-literatura-infantil-juvenil>

GALTZAGORRI: <https://www.galtzagorri.eus/euskara/haur-eta-gazte-literatura>

